

## **LEHENENGO KLAUSULA – XEDEA**

Oinarri hauen xedea aparkalekuko kontrolatzaileen lan-kontratazio arautzea da, batetik, balizko beharrak estaltzeko (oporrak, ITak, zerbitzu bereziek, ekoizpen puntak, txanda-kontratuak, etab.) eta, bestetik, enpresaren antolaketa-beharrizanen arabera zehaztutako lanpostu estrukturalak estaltzeko.

Haien egiteko nagusiak honako hauek izango dira: ibilgailuek instalazioetara egiten dituzten sartu-irtenak kontrolatzea eta kudeatzea, eta/edo salgaien zamaketa- eta kudeaketa-lanak, enpresaren biltegian.

Lanok egiteko, txanda hauek esleituko dira: goizez, arratsaldez eta gauez, larunbat, igande eta jaiegunetan; eskatzaileak intereseko duen erreferentziako edozer jarduera-esparrutan eta -inguruabarretan.

Lan-poltsatik kanpo geratuko dira uneren batean egoera horiek onartzen ez dituzten hautagaiak, ondore gutzietarako.

## **BIGARREN KLAUSULA. - BETEKIZUNAK**

### Ezinbestekoak

1. Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea; Espainiako Estatuak sinatutako nazioarteko tratatuen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen den estaturen bateko nazionalitatea izatea; edo lan- eta bizileku-baimena edukitzea.
2. 18 urte beteta edukitzea.
3. Ez egotea baztertuta, diziplina-espeditzez, Administrazio Publikoaren edo haren mendeko organoen zerbitzutik, edo ez egotea ezgaituta enpresa publikoan jarduteko.
4. Gutxienez LH II edo erdi-mailako titulazio akademikoa, batxilergoa edo lan-ondoretarako baliokidea den titulazioren bat izatea.
5. B gidabaimena.

Hautagaiak beteta eduki behar dituzte baldintza horiek guztiak, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

### Balioetsiko da

1. Lan-esperientzia frogagarria izatea ibilgailu astunen aparkalekuak kontrolatzen eta kudeatzen.
2. Esperientzia izatea ibilgailu astunen eta/edo salgai arriskutsuen aparkalekuetan.
3. Esperientzia izatea telebista-zirkuitu itxiak erabiltzen, ezartzen eta garatzen (CCTV).

4. Prestakuntza eta esperientzia izatea Word eta Excell aplikazioetan.
5. Orga jasotzaileak gidatzeko baimen-txartela.
6. Salgai arriskutsuetarako ADR ikastaroak eta prestakuntza.
7. Euskara- eta ingeles-maila.
8. C gidabaimena.

## **NORTASUN-PROFILA**

Lanpostu honetarako hautagaiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte: Norbere buruarekin konfiantza izatea, egonkortasun emozionala, erresistentzia egokia ezbeharren aurrean, komunikatzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna. Taldean lan egiteko gauza izatea; ezagutza- eta identifikazio-maila handia garatuko dute enpresarekin.

## **HIRUGARREN KLAUSULA. - PLAZAREN EZAUGARRIAK**

Deialdi honek aparkalekuko kontrolatzaile-lanpostua du xede, eta honako egiteko eta erantzukizun hauek izango ditu:

### **APARKAMENDUAK**

- Aparkalekuak irekitzea eta ixtea, pertsonen segurtasunaren erantzukizuna bere gain hartuz, baita sartzen diren ibilgailuena ere.
- Aparkalekuetara sartu nahi duten ibilgailuak eta pertsonak kontrolatzea eta erregistratzea.
- Aparkalekuko datuen kudeaketa eta ibilgailuen egoera.
- Gorabeherak jakinaraztea.
- Erabiltzaileei kobratzea.
- Aparkalekuak zaintzea eta telebista-zirkuitu itxiak erabiltzea.
- Arduradun hierarkikoen agindutako antzeko lanak egitea.
- Bere lan-esparruko eta ardurapeko egiteko guztiak gauzatzeko, sozietatearen helburu estrategikoak betetzeko ezinbestekoak direnak.

### **BILTEGIA**

- Aduanako salgaien eta salgai nazionalen zamaketa-lanak egitea, Aparkabisaren biltegian.
- Albaranak eta dokumentazioa kontrolatzea.
- Salgaien eta kargen antolaketa egiaztatzea.
- Orga jasotzailea erabiltzea.
- Salgaiak etiketatzea eta atontzea, biltegiaren antolaketa-esparruan.
- Aduanako eta Esportazioko kudeaketako sarrerak eta irteerak.

## **LAUGARREN KLAUSULA. – ESKABIDEEN AURKEZPENA**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak, SOIL-SOILIK, prozesurako kontratatutako pertsonal-hautaketarako enpresari zuzendu behar zaizkio, hamar egun naturalen epean, deialdiaren iragarkia prentsan argitaratzen denetik hasita (Maiatzaren 19). Aurkezteko epea Maiatzaren 29an amaituko da, 14:00etan.

Hautagaiek erregistratu eta curriculuma bidali beharko dute, pertsonal-hautaketako enpresak emandako helbide elektronikora. Mezu horretan, eskatutako agiri guztiak gaineratu beharko dituzte. Ezinbestekoa da hautagai guztiak helbide elektronikoa izatea, aholkularitza-enpresa haiekin banan-banan harremanetan ipin dadin fase bakoitzean.

Hona hemen NAHITAEZ aurkeztu beharreko agiriak:

1. NANaren edo dokumentu baliokide baten kopia.
2. Bigarren klausulan eskatutako gutxieneko titulazioaren kopia.
3. CV (Curriculum Vitae). Lan-esperientzia bakoitzak bere hasiera- eta amaiera-dataekin agertu behar du.
4. Lan-bizitzaren ziurtagiria.
5. I. ERANSKINAREN arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena, zeinean bermatuko baita egiazkoak direla agiri horretan eta curriculumean jasotako merezimenduak. Hautaketa-enpresak ausaz egiaztatuko ditu erantzukizunpeko adierazpen pertsonalak.

Ez da onartuko agiri guztiak aurkeztu ez dituen eskaerarik.

Eskaeran datuak ezkutatzuz gero edo datu okerrak ipiniz gero, hautagaia baztertuta geratuko da lan-poltsatik, eska dakizkiokeen erantzukizunak eskatzearen kalterik gabe.

Kanpoko hautaketa-enpresaren elkarrizketa-fasean, eskatuko da posta elektronikoz bidalitako informazioa (titulazioa eta NANA) kopia konpultsatu eta jatorrizkoekin alderatzeko.

## **BOSGARREN KLAUSULA.- ONARTZEKO IZAPIDEA**

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuko da.

Aholkularitza-enpresak argitaratuko du erabaki hori bere webgunean, eta eskuragarri izango da Aparkabisaren webgunean ere.

Zerrenda argitaratu eta hiru egun naturalen barruan, egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, hautaketa-enpresaren helbide elektronikora idatzita. Behin-behineko baztertuen zerrendan geratutako hautagaiak behin betiko baztertuko dira eta ez dituzte probak egingo, nola eta ez dituzten zuzentzen baztertzeko arrazoiak aipatutako epearen barruan, onartuen zerrendan sartzeko eskubidea justifikatuz.

Azterketa-epaimahaia zuzendari kudeatzaileak eta langileen lege-ordezkaritzako kide batek osatuko dute, eta onartuen zerrendaren gaineko erreklamazio-epea hasi eta bosgarren egunera elkartuko da.

Erreklamaziorik ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Erreklamaziorik balitz, beste ebazpen bat emango da, onartzeko edo baztertzeko eta behin betiko zerrenda onartzeko. Behin betiko zerrenda hori aholkularitza-enpresaren webgunean ez ezik Aparkabisarenean ere argitaratuko da, onartuen zerrendari erreklamazioak egiteko epea ireki eta bederatzi egunera.

Hautagaiek deialdi bakarra izango dute ariketak egiteko, nola eta ez den halabeharrezko arazoiren bat, behar bezala justifikatua.

Hautaketa-prozesuak fase hauek izango ditu:

Fasea		Puntuak	Kontrol-puntua
Aurrehautaketa		Kanporaketa, betekizunengatik	Zerrenda epaimahaiari
		Betekizun osagarrien balioespena 6 punturaino	Zerrenda epaimahaiari
Elkarrizketa eta probak	Proba psikoprofesionalak	4 punturaino	Txostena epaimahaiari
	Elkarrizketa pertsonala kanpoko enpresarekin	5 punturaino	
Elkarrizketa pertsonala epaimahaiarekin		5 punturaino	

#### LEHEN FASEA: AURREHAUTAKETA

Hasierako aurrehautaketa kanpoko aholkularitzaren bidez egingo da; hark egiaztatuko du eskatzen diren betekizunak betetzen diren edo ez, eta baloratu beharreko ezagutzak, honako baremo hauen arabera.

- 1) Baztertzailerak izango da ez betetzea bigarren klausulan nahitaezko zat jotako betekizunen bat.
- 2) Ezinbesteko irizpideak betetzen dituzten pertsonak onartutzat joko dira.

Bigarren faseari ekin aurretik, onartuen eta baztertuen zerrenda bidaliko da, bosgarren klausulan zehaztutakoari jarraikiz.

Onartuen behin betiko zerrenda egin ostean, bigarren klausulan azaldutako alderdi balioesgarriak aztertuko dira, honako baremo hauen arabera:

- a) Ingeles-maila egiaztatuta edukitzeagatik (gutxienez B1 edo baliokidea): 0,5 puntu
- b) Euskara-maila egiaztatuta edukitzeagatik (gutxienez B1 edo baliokidea): 0,5 puntu
- c) Ibilgailu astunak aparkatzen urtebetetik gorako esperientzia edukitzeagatik: 1 puntu
- d) Salgai arriskutsuak aparkatzen urtebetetik gorako esperientzia edukitzeagatik: 0,5 puntu
- e) Telebista-zirkuitu itxiak erabiltzen eta ezartzen urtebetetik gorako esperientzia edukitzeagatik: 1 puntu
- f) Orga jasotzaileak gidatzeko baimen-txartela edukitzeagatik: 0,5 puntu
- g) Heziketa eta esperientzia izatea Word eta Excell aplikazioetan: 1 puntu
- h) C gidabaimena: 0,5 puntu
- i) ADR ikastaroak eta prestakuntza izateagatik (gutxienez 10 ordukoa): 0,5 puntu

Hurrengo fasera igaroko dira puntuazio horren arabera lehen 50en artean geratutako hautagaiak.

#### **BIGARREN FASEA: PROBA PSIKOPROFESIONALAK ETA ELKARRIZKETA PERTSONALAK**

Gaitasunei buruzko test psikoprofesionala egingo da.

- Proba psikoteknikoak.
- Nortasun-probak.

Berariaz diseinaturik izango da hainbat lan-alderdiren adierazgarri diren portaerekin loturiko esparru profesionaleko gaitasunak neurtzeko. Kanpoko hautaketa-enpresak egingo du, eta gehienez 4 puntuko puntuazioa izango du, formula honen arabera:

$4 \times 1 - (\text{puntuaziorik altuena} - \text{lortutako puntuazioa}) / \text{puntuaziorik altuena}$ .

Puntuazio handiena eskuratu duten hogeit hamar hautagaiak elkarrizketen fasera igaroko dira: curriculumari buruzko elkarrizketa horretan, lanpostuarekin lotutako gaitasun teknikoak, generikoak eta jarrerarekin lotutakoak balioetsiko dira. Kanpoko hautaketa-enpresak egingo du elkarrizketa hori.

Modu ñabartuan ebaluatuko eta bereiziko da ea elkarrizketatutako hautagaitzek nahikoa betetzen dituzten lanpostuan aritzeko ezaugarri, trebetasun eta gaitasunak.

Fase honetan, euskaraz eta ingelesez hitz egiteko jariora egiaztatuko da.

Fase honetako puntuazioa, gehienez ere, 5 puntu izango da, alderdi hauen arabera banaturik:

1. Elkarrizketan lanpostuko eginkizunetarako aipatutako gaitasun-maila: 3 punturaino (oso apala 0, apala 0,5, ertaina 1, ertain-altua 2, altua 2,5, oso altua 3).
2. Koherentzia, diskurtsoa eta arrazoibidea, 1 punturaino (apala 0, ertaina 0,5, altua 1)

3. Hizkuntzetako bakoitzeko jariora, 1 punturaino: Apala, 0 puntu, hizkuntza gorabehera; ertaina/handia, 0,5 puntu hizkuntzako.

Hautaketa-enpresak 15 punturainoko balorazio oso bat bidaliko du, aurreko puntuetan azaldutakoaren arabera, eta nabarmendu beharko ditu hautagaiaren indarguneak eta hobetzeko eremuak, bigarren klausulan eskatutako profilararen arabera, eta nolako gaitasuna eta esperientzia duen hirugarren klausulan deskribatutako eginkizunei heltzeko.

### **HIRUGARREN FASEA: EPAIMAHAIAREN ELKARRIZKETA PERTSONALA**

Hautaketa-enpresak txosten bat aurkeztuko du non jasoko baita zer proba egin diren eta hautagaien balorazioa, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiak, hautagaiei egindako elkarrizketa pertsonal baten ondoren, erabakiko du zein pertsona diren egokienak lanpostuak betetzeko, gehienez ere 5 puntu emanda hautagai bakoitzari.

Epaimahaiak, elkarrizketan, galderak egin ahal izango ditu, argibideak eta informazio gehiago eskatu, beti hautaketa-enpresak emandako txostena eta hautagaiak berak aurkeztutako dokumentazioari erreferentzia eginez —haien artean, eskatutako ezagutzei buruzko alderdiak, lanpostuan jarduteko lan-esperientzia eta pertsonaren ezaugarriak—, hartara lanpostura hobekiena egokitzen den hautagaia aukeratu ahal izateko.

Epaimahaiak jarritako leku, data eta orduan deialdira agertzen ez diren izangaiak, are ezinbestezko arrazoiak tarteko direla ere, behin betiko baztertuko dira hautaketa-prozesutik.

Hautaketa-prozesuaren azken sailkapeneko ordenak erabakiko du izangaien zerrendako ordena (gehienez 20 puntu izango dituzte):

- Aurrehautaketako merezimenduen balorazioagatik: 6 punturaino.
- Hautaketa-enpresaren elkarrizketaren balorazioagatik: 5 punturaino.
- Test psikoteknikoen eta nortasun-testen emaitzengatik: 4 punturaino.
- Epaimahaiarekiko elkarrizketaren balorazioagatik: 5 punturaino.

### **ZAZPIGARRENA.- AZTERKETA-EPAIMAHAIA**

Aparkabisaren azterketa-epaimahaiak, zeina osatuko baitute zuzendari nagusiak eta langileen ordezkari-organoko kide batek, ager daitezkeen zalantzak ebazteko ahala izango du, bai eta hautaketa-prozesuko ordena egokirako beharrezko erabakiak hartzekoa ere, oinarri hauetan jaso gabeko auziei dagokienez.

Azterketa-epaimahaiak hartutako ebazpenak aktan jasoko dira; erabakigarriak izango dira eta ezin izango da aurkeztu haren kontrako errekurtsorik.

Epaimahaiak, hautagaiei egindako elkarrizketa pertsonal baten ondoren, erabakiko du zein pertsona diren egokienak lanpostuak betetzeko, gehienez ere 5 puntu emanda hautagai bakoitzari.

Epaimahaiak, elkarrizketan, galderak egin ahal izango ditu, argibideak eta informazio gehiago eskatu, beti hautaketa-enpresak emandako txostena eta hautagaiak berak aurkeztutako dokumentazioari erreferentzia eginez —haien artean, eskatutako ezagutzei buruzko alderdiak, lanpostuan jarduteko lan-esperientzia eta pertsonaren ezaugarriak—, hartara lanpostura hobekiena egokitzen den hautagaia aukeratu ahal izateko.

Epaimahaiak jarritako leku, data eta orduan deialdira agertzen ez diren izangaiak, are ezinbestezko arrazoiak tarteko direla ere, behin betiko baztertuko dira hautaketa-prozesutik.

## **ZORTZIGARRENA.- PROZEDURA**

Hiru egun naturaleko epea izango da erreklamazioak aurkezteko, lehendabiziko fasearen emaitzak argitaratzen direnetik aurrera. Erreklamazio horiek fase horretako ariketak bakarrik izango dituzte xede.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta bost egun baliodunen ostean, fase horretako erreklamazioak ebatziko dira, eta hurrengo ariketa egiteko onartuen zerrenda argitaratuko da. Hautaketa-enpresak bere webgunean argitaratuko du zerrenda, eta Aparkabisaren webgunean ere eskuratu ahaliko da. Zerrenda horretako hautagaiei jakinaraziko zaie non, noiz eta zer ordutan izango diren hurrengo faseko probak.

Bigarren fasea egin ostean, aholkularitza-enpresa harremanetan ipiniko da prozesua gainditu duten pertsonekin.

Hiru egun naturaleko epea izango da erreklamazioak aurkezteko, azterketa-epaimahaiak emaitzak argitaratzen dituenetik. Organo horri berari egin beharko zaizkio erreklamazioak.

Proba guztietako emaitzen batura izango da hautaketa-probak gainditu dituzten izangaien azken kalifikazioa. Hala zehaztuko da behin betiko puntuazio-ordena.

Epe hori amaitu ostean, enpresaren zuzendaritzara helaraziko da lan-poltsako aurrehautagaien behin betiko proposamena. Harekin batera aurkeztuko ditu honako hauek ere: jarraitutako prozedurari buruzko txostena, aurkeztutako hautagaien zerrenda eta haietako bakoitzak eskuratutako puntuazioa.

Fase guztiak gainditu ostean, kontratatu gabeko pertsonak lan-poltsa batean bilduko dira denborazko enplegurako.

## I. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaunak/andreak (..... NAN-zenbakia; adinduna eta ..... helbidea duena)

adierazten du baduela APARKABISA 2019ko aparkaleku-kontrolatzaileen kontratazioaren arauen berri, eta osorik onartzen duela haien edukia. Halaber,

#### BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

1. Egiazkoak eta egiaztagarriak direla curriculumean ipinitako datuak.
2. Aurkeztutako agiriak (lan-bizitza, NANA edo baliokidea, eskatutako titulazioa) bat datozela jatorrizkoekin eta ez daukatela datu okerrik.
3. Eskatutako dokumentazioaren arabera, betetzen dituela honako betekizun hauek (X batekin markatu dagokion koadroan):

Ez egotea aldentuta, diziplina-espedientez, Administrazio Publikoaren edo haren mendeko organoen zerbitzutik, edo ez egotea ezgaituta enpresa publikoan jarduteko.	
Urtebetetik gorako lan-esperientzia frogagarria daukala, ibilgailu astunen aparkalekuak kontrolatzen eta kudeatzen.	
Egiaztatuta daukala ingeles-maila (gutxienez B1 edo baliokidea).	
Egiaztatuta daukala euskara-maila (gutxienez B1 edo baliokidea).	
Urtebetetik gorako esperientzia daukala salgai arriskutsuak aparkatzen.	
Urtebetetik gorako esperientzia daukala telebista-zirkuitu itxiak erabiltzen eta/edo ezartzen.	
Badaukala orga jasotzaileak gidatzeko baimen-txartela.	
Badaukala heziketa eta esperientzia Word eta Excell aplikazioetan	
B gidabaimena.	
C gidabaimena.	
Badituela ADR ikastaroak eta prestakuntza (gutxienez 10 ordukoa).	

Halaber, aitortzen eta onartzen du ezen, eskaeran datuak ezkutatzuz gero edo datu okerrak ipiniz gero, hautagaia baztertuta geratuko dela lan-poltsatik, eskatu beharreko erantzukizunak eskatzearen kalterik gabe.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut,

.....n, 2019...(e)ko .....aren ...(e)(a)n.

[Izena eta sinadura]